



jakinbai.eus
heziraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
[Ekinbira sitea](#)
 ☎ 943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

ARGITALPEN BERRIAK

jakinbai.eus web atarian eskuragarri jarri dira material berriak

Diseinu grafiko aplikatua

Jakinbai Laneki — 2026/06/29



MARRAZKETA ETA ERAIKUNTZA TEKNIKAK ZUREZKO EGITURETAN

Baserriberri, Egurrean eraikitzeko eta eraikinak zaharberritzeko zurezko lan-teknikei buruzko formakuntza ikastaroa eta ariketen koadernoak.

Jakinbai Laneki — 2026/06/29

Harrera eta Erreserbak

"Harrera eta Erreserbak" proiektuak turismo-ostatuen sektorean harrera-funtzioak eta erreserben kudeaketa modu profesionalean lantzea du helburu. Ikasleek front office y back office operatiboa ezagutzen dute, bezeroaren harrera eta arreta, check-in/check-out prozedurak, kexen kudeaketa, erreserba-kanalen funtzionamendua, tarifazioa eta dokumentazio administratiboa. Proiektuak ahozko komunikazioa indartzen du: bezeroari informazioa emateko estrategiak, hizkuntza egokituak, euskararen erabilera profesionala eta turismo-ostatuaren ohiko egoeren simulazioak (dei profesionalak, erreserbak, kexak, informazio eskaerak...). Lanbide-egoera errealetan oinarritutako role-play eta simulazioak: • Ahozko komunikazio formala eta informala lantzen da harreran eta telefonogunean • Euskal dimentsioa txertatzen da arreta-protokoloetan eta dokumentazioan • Kexen eta iradokizunen kudeaketa • Erreserba-sistema digitalak erabiltzea (OTAK, PMSak) • Bezeroaren esperientzia eta kalitate estandarrak lehenesten dira • Talde-lana, proaktibitatea eta autonomia sustatzen dira

Jakinbai Laneki — 2026/06/16



Enplegurako Ibilbide Pertsonala

Enplegurako Ibilbide Pertsonala I modulurako materiala

Jakinbai Laneki — 2026/05/14



[material berriak](#)



jakinbai.eus

heziraul.eus

lhduaLaeuskaraz.eus

[Ekinbira](#) sitea

☎ 943 376 532

jakinbai@jakinbai.eus

HIZKELAN XI. JARDUNALDIA

2026ko urriaren 20an izango da, Don Bosco LHIn, gorde hitzordua



OROIGARRIA NORI EMAN PROPOSAMENAK

Hizkela XI jardunaldian Lanbide Heziketa euskaraz indartzeko lanean aritu den norbanakoa, taldea, elkarte, enpresa edota erakundea sarituko da eta oroigarria emango zaio.

Proposatu oroigarria jaso dezaketen hautagaiak:

[Galdetegia erantzunez proposatu](#)

ALBISTEA: BURUNTZALDEAKO UDALAK ETA LANEKI, EUSKARAZKO LAN-MUNDUAN ERAGITEN

2026-06-09

Duela hainbat hamarkada euskarazko ikasmateriala sortzen hasi ziren Lanbide Heziketako (LH) irakasle-taldeak, eta 2003an, **LANEKI** elkarte sortu zen, ahalegin guztiak batzeko asmoz. Orduz geroztik, euskarazko materiala itzultzen, prestatzen, eguneratzen eta eskura jartzen aritu da LANEKI; bi hamarkadotan ekarpen nabarmena egin dio, bai, Lanbide Heziketako euskararen normalizazioari, bai lan-munduari.

Buruntzaldeko udalek ere lan-ildo horri heldu nahi izan zioten, eta LANEKIrekin elkarlanean hasi ziren. Eskualdean 10 ikastetxek eskaintzen dute Lanbide Heziketa, eta guztira 60 ziklo baino gehiago egiteko aukera dago. Horrez gain, 1. eta 2. mailetako ikasleak lantokietara ere joan ohi dira ikastera; bada, azken urteetan, ikasleek euskaraz egin dute egonaldia eskualdeko 353 lantokitan.

Lan-esparruak: materiala, hiztegiak, Lanbide Heziketa Duala euskaraz

Lanbide-familia guztientzako euskarazko **materialak** sortzen dira, eta, gaur egun, 1.260 material baino gehiago daude sarean, **jakinbai.eus** webgunean partekatuta. Buruntzaldeko udalekin lankidetzan, urtero 2 material sortzen dira; adibidez, azken urteotan esanguratsuak izan dira *Elektrizitatea eta elektronika, Informatika eta Komunikazioa eta Irudia eta Soinua*.

Jakinbai.eus webgunean **Hiztegia** atala ere bada, eta lanbide-familia guztietako terminologia dago. Guztira, 12.791 kontzeptu biltzen ditu; horiek adierazteko euskarazko kontzeptuak 13.823 dira, eta gaztelaniazkoak, 13.178. Hiztegia edonork kontsulta dezake, erabiltzaile gisa sartuta.

Lanbide Heziketa Duala euskaraz komunitateari dagokionez, baliabideak eskaintzen zaizkie **Ihdualaeuskaraz.eus** web-atarian komunitatea osatzen duten erakundeei, lantokiei, ikastetxeei eta ikasleei. Baliabide azpimarragarrienak honakoak dira: lantokientzako autodiagnostikorako galdetegia, LH Duala euskaraz marka, LH Duala euskaraz eskuliburua eta infografiak, praktika onen bideoak...

Emankorra izaten ari da Buruntzaldeko udalen eta LANEKIren arteko egitasmoa; horren isla da **jakinbai.eus** web-atariak 14.000 erabiltzaile baino gehiago izatea. Eta datozen urteetan, Lanbide Heziketa eta arlo sozioekonomikoa euskaraz bultzatzen segituko dute bi aldeek, lan euskaraz egiteko aukerak ugartze aldera.

[albisteak](#)

jakinbai.eus
heziraul.eus
Ihdualaeuskaraz.eus
Ekinbira sitea
 ☎ 943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus